

Donostia, 2016ko apirilaren 22a

## IDAZKARI NAGUSIARI:

### HAURTXOKOEI ETA GAZTELEKUEI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Amaia Martinezek, Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, hil honetako Pertsonentzako Zerbitzu Batzordean jarritako interpelazioaren harira.

### JUSTIFIKAZIOA

Haurtxokoei eta gaztelekuei, Donostia Kulturak kudeatzen dituen aisiarako gune publikoek, aukera ematen diete hiriko haur eta gazteei hainbat eta hainbat jarduera egiteko eta adiskidantza harreman garrantzitsuak lantzeko. Hori dela eta, uste dugu biak ere oinarritzko zerbitzuak direla hiriko gaztetxoentzat.

Hainbat gizarte eremutatik adierazi digute beharrezkoa dela zerbitzu horiek udan ere ematea; izan ere, horiei esker, gaztetxoek, batez ere kanpoaldeko auzoetan bizi direnek, aisiarako oinarritzko gune batzuk erabil ditzakete.

Zenbait auzotan, batez ere kirol azpiegituretan gabeziarik handienak dituzten auzoetan, haurtxokorik eta gaztelekurik ez izateak berak edo udako hilabeteetan ixteak are zailago jartzen die gazte horiei aisiarekin loturiko jarduerak egitea.

Ezin dugu ahaztu, gainera, horrek eragin handiagoa duela auzo horietan, kanpoaldean egonda errealitate sozioekonomiko konplexuagoak baitituzte hirigunetik gertuago dauden eta gazteentzako aisi eskaintza handiagoa duten auzoek baino. Beraz, udal gobernua lehentasunezko zatia jo beharko luke sektore publikoak aisiarako aukerak bilatzea auzo horietako haurrak eta gazteak dinamizatzeko.

Era berean, gabezia handia sumatzen dugu haurguneetan; izan ere, proiektu hori, 0 eta 5 urteko haurrentzat hain interesgarria dena, hiriko bi auzotan bakarrik jarri da martxan, familia askoren ahalegin desinteresatuari esker. Uste dugu beharrezkoa dela adin tarte horretako umeentzako eskaintza zabaltzea eta era horretako gune gehiago jartzea, hiriko auzo guztietan egin ahal izateko jarduerak.

Martuteneko haurtxokoaren eta gaztelekuaren egoerari buruz egin genuen interpelazioari emandako erantzuna ez zaigu nahikoa iruditzen. Izan ere, ezin diogu errentagarritasun ekonomikoari begiratu kulturaz eta pertsonentzako oinarritzko zerbitzuez ari garenean, are gutxiago kontuan izanda udal kutxan superabita

dagoela eta milioika euro erabiltzen direla era guztietako ekitaldietarako. Egin dezagun errealitate Donostia 2016ren leloa, "Bizikidetzarako kultura", eta has gaitezen, jadanik, Kulturaren Hiriburutzaren ondarea sortzen. Gure esku dago kultura eta bizikidetzaz lantzeko gune iraunkorrak sortzea ume txikientzat eta gaztetxoentzat.

Hori dela eta, hauxe da aurkezten dugun

### KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari Donostiako udal gaztelekuak eta haurtxokoak irekita eduki ditzala udako hilabeteetan.
2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari era dezala udal haurtxoko eta gaztelekuen sare bat, Donostiako auzo guztietara iritsiko dena, herritar guztiek baldintza berbertan erabili ahal izan ditzaten, bizi diren auzoan bizi direla.
3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari jar dezala gutxieneko adin bat hiriko haurtxoak erabiltzeko eta denetan sei urteetan egon dadila muga hori.
4. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari udal haurtxoko eta gaztelekuen sarean sar ditzala haurguneak ere, hau da, 0 eta 5 urte bitarteko umeentzako aisia guneak.

Sinatua: Amaia Martin Garin,

Irabazi Donostia taldearen bozeramailea.